

UDAL BATZARRARI

Donostiako Udalbatzak, 2020ko urtarrilaren 31n eginiko bilkuran, hasiera batean onartu zuen Garraio zerbitzu erregularri izaera publiko zergazkoa ez den ondare prestazioa arautzen duen Udal Ordenantzaren eranskinaren (lehenengo) aldaketa.

Hasierako onarpenaren iragarkia 2020ko otsailaren 3an argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean; hala, jendaurrean jarrita edukitzeko epea hasi zen.

Epe hori 2020ko ekainaren 3an bukatu zen, eta ez da erreklamaziorik aurkeztu.

Horrenbestez, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeko 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan xedaturikoarekin bat, egun horretatik aurrera hasierako onarpen erabakia behin betiko onartutzat jo daiteke eta, horren ondorioz, Ordenantzaren eranskinaren testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

Halaber, eta zentzu horretan, Donostiako Udaleko Udalbatzaren Araudi Organikoaren 113. artikuluko honako xedatzen du: *"alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko bilakatuko da, Tokiko Gobernu Batzarrak gertakari hori Idazkaritza Nagusiari jakinaraziko dio, eta azken horrek beharrezko gestioak egingo ditu Udalbatzari behin betiko onarpenaren berri emateko."*

Horiek horrela, Udalbatzari jakinarazten zaio behin betiko onartu dela Garraio zerbitzu erregularri izaera publiko zergazkoa ez den ondare prestazioa arautzen duen Udal Ordenantzaren eranskinaren (lehenengo) aldaketa.

Donostian, 2020ko ekainaren 11n.

IDAZKARI NAGUSIA/EL SECRETARIO GENERAL

JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA".

“AL AYUNTAMIENTO PLENO

El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 31 de enero de 2020, aprobó inicialmente la modificación (primera) del Anexo de la Ordenanza Municipal reguladora de la prestación patrimonial de carácter público no tributario por el servicio de transporte regular.

Con fecha 3 de febrero de 2020 se insertó el anuncio de la citada aprobación inicial en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, abriéndose el plazo de exposición pública.

Finalizado dicho plazo el 3 de junio de 2020, no consta que haya sido presentada reclamación alguna.

En consecuencia, de conformidad con lo dispuesto en el último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, a partir de esa fecha puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro de la modificación del Anexo de la Ordenanza en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Así mismo, y en este mismo sentido, el art. 113 del Reglamento Orgánico del Pleno del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián señala que *"en caso de que no se hubiera presentado reclamación o sugerencia se convierte en definitivo el acuerdo de aprobación hasta entonces provisional y que la Junta de Gobierno comunicará dicha circunstancia a la Secretaría General quien llevará a cabo las gestiones oportunas para dar cuenta de la aprobación definitiva al Pleno"*.

Por lo expuesto, se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno de la aprobación definitiva de la modificación (primera) del Anexo de la Ordenanza Municipal reguladora de la prestación patrimonial de carácter público no tributario por el servicio de transporte regular.

En San Sebastián, a 11 de junio de 2020.